



## Zurriolako Ataria

49. alea

2019-02-08

### Igeriketa LH3 - LH4

Otsailean LH3 eta LH4ko ikasleek berriro ekin diete igeriketa ikastaroari. Zuhaiztiko, Bidebietako eta Intxaurrendoko igerilekuan ezin gusturago aritu dira ikasten GKESeko ikasleek erakutsita.



### Santa Ageda bezpera Ategorrietan

Santa Ageda bezpera ospatzeko, Ategorrietan bisita izan dituzte LH5 eta 6. mailako lagunak eta makilkaden erritmoan gogo biziz aritu dira kantari.



### DBH2-3koak Eretan

Joan den asteburuan DBH2 eta 3ko ikasleak eskiatzera joan ziren Eretara (Arette). Eguraldiaren iragarpena kaskarra izan arren, adorea ez zitzaion falta izan bildutako 51 lagunei. Estazioa elurrez lepo aurkitu zuten eta elurra mara-mara ari zuen iristerakoan.



### Joskintza auzolanean

Auzolanean egindako jarduerak sustatzeko ahaleginari eutsiz, inauterietan LH6ko ikasleek kaleratuko dituzten Uztaritzeko *Kotilungorrien* mozerro berria elkarlanean ari gara osatzen. Alde batetik, gonon josketa eta bestaldetik maskaren apainketa eta josketa hainbat mailatako guraso eta irakasleak burutzen ari dira. Datozen asteetan ere, joskintza kooperatibo honekin jarraituko dugu Hurren astelehen eta asteazken arratsaldetan zein nork bere etxean.



### IKASTOLA aldizkaria bertsio digitalean

"IKASTOLA" aldizkaria, Ikastolen Elkartean dauden 108 ikastola eta 40.000 familien aldizkaria da. Ikastolen komunikazioa, ahotsa, zabaltzen duena. Familia eta gizartea informatzea du helburu 1991z geroztik. Gaur egun bertsio digitalean ere duzue irakurgai [bertan](#).



KALDEREROAK MANTEON. Lehengo asteko ikuskizunaren argazkien bilduma [bertan](#) duzue ikusgai.



KALDEREROAK SOROAN. Gaur zortzi Soroan HH2koek egin zuten saioaren bideoa duzue ikusgai.

### OHARRAK / AGENDA:

- DBH4: "Arriskua alkohola". Tailerrak. Otsailak 13 eta 15.
- Inauterietako jantziak: [Txostena](#).
- Eskola Kirola: 11. jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- Zurriola Antzerki Eskolaren batzarra: Batzordearen berriztapena. Interesatuak izena eman [bertan](#). [Deialdia](#).
- Zurriola Musika Eskolaren batzarra: [Deialdia](#).
- Zurriola Kirol Elkarteen batzarra: [Deialdia](#).
- Oporrak bakean: Haur errefuxiatu Sahararren udako harrera [programa](#).
- Donostiako Udal Haurtxokoak: [Familiarekin jolasean](#).
- Aisialdiko jarduerak haurrentzat: [Otsailak 8-10](#).

**ikastola**  
elkarrekin  
hezkuntza  
eraldutzen

